

Ander Iruretagoiena Castro

*Zarautz,
Gipuzkoa
(1994)*

Aurkibidea

Biografia



Bulgarian jaio zen 1994an. Sei urte zituela, harrera-familia batek umezurztegitik atera eta Euskal Herrira ekarri zuen, Zarautzera, hain zuzen ere. Orduetik bertan bizi izan da eta egun aktorea da. Antzerkia du afizio zein ofizio eta horretaz jardun genuen berarekin 2018an egindako elkarrizketa honetan.

Zintak

ZAR-168

- **Proiektua:** Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Eizagirre Agoues, Libe
- **Data:** 2018-01-10
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Altzibar, Maider

Pasarteak

1. Bulgarian jaioa

- **Erref:** ZAR-168/002
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:00:19. **Bukatu:** 00:01:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

Ander Iruretagoiena Kastro 1994an jaio zen irailaren 5ean Bulgarian. 6 urterekin etorri zen Zarautzera. Harrera familia batek ekarri zuen Euskal Herrira. Bere harrera familian arreba bat dauka, Esti.

2. Bulgariako umezurztegitik Zarautzera

- **Erref:** ZAR-168/003
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:01:17. **Bukatu:** 00:02:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

<p>Sei urte zituela, Bulgariako umezurztegitik atera eta bere harrera familiarekin Zarautzera etorri zen. Berarentzat aldaketa handia izan zen, nahiz eta oso ongi ez gogoratu. Hala ere, oraindik zenbait irudiz oroitzen da.</p>

Transkripzioa

- Ta pentsatzen det igual pixkat gogorra dala, baiño gogoratzen zea Zarautzea etorri ziñanian ta nola?
- Zarautzea etorri nintzarian? Imagen txiki-txikitxo batzuk dazkat, baiño, bueno, dia... Ba gogoatzen naiz, adibidez, ba, bost urtekin jun ziala bixitatzea. Eta, ondoren, gero ya sei urtekin ya, bueno, jun zian bixitatzea elejitzeko aber zein... zein izango zan eramateko, ze ume. Eta juxtu nei aukeratu ziyen ta sei urtekin ya eraman in zzien. Eta izan zan, bueno, udara baten edo hola izan zan uste det. Eta eraman zien eta, klaro, ba, hango ume bat inoiz ez duna ikusi kanpoko ezer, beste... osea, dana orfanatokua, ba, pues imajinatu dezakezu dana zala "en plan: ¿Qué es esto

por Dios?, ¿Dónde estoy? en un avión. ¿Qué es esto? un avión, nunca he visto un avión...". Osea, dana zan "¡ostra, qué fuerte!".

- Bai, ezta? Gaiñea zuretzat, gaiñea, hizkuntza pentsatzen det' e bai...
- Klaro, hizkuntza're aldaketa... dana. Dana, dana. Osea, ba aldaketa izan zan dana. Orduan, dazkat imajen txikitxo batzuk, ba, ez dakit, ba... ba, bueno, ba, abioia hartzen... Hartu baiño lehen esaten nula "samulet" holako zeoze. Ez dakit ze esaten nun, uste det "samulet" zala abioia Bulgaroz eta hor esaten nun dana emozionauta "samulet, samulet" edo. Ta holaxe.

3. Urte batean euskara ulertzeko eta hitz egiteko gai

- **Erref:** ZAR-168/004
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:02:39. **Bukatu:** 00:03:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Orokieta Herri Eskolara joan zen; bertan Lehen Hezkuntza burutu zuen eta gero bigarren hezkuntza Lizardi Institutuan. Hizkuntza azkar ikasi zuela esaten diote; urte batean hizkuntza ulertzeko eta hitz egiteko gai zela.

4. Sukadaritzaren ondoren aktore lanetara

- **Erref:** ZAR-168/007
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:04:24. **Bukatu:** 00:04:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

DBH bukatu eta gero sukaldaritza egin zuen. Hori bukatzerakoan aktore munduan sartzeko lanetan hasi zen.

5. Zarauzko Alproja antzerki amateur taldea

- **Erref:** ZAR-168/008
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:04:59. **Bukatu:** 00:08:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Aktore munduan sartzeko Zarauzko alproja antzerki amateur taldean apuntatu zen. Udara aldean hasten dira entseatzen eta Euskal Jai egunean antzezten dute.

6. Donostiako arte eszenikoen tailerrea

- **Erref:** ZAR-168/009
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:08:28. **Bukatu:** 00:09:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

DBH eta sukaldaritza bukatu eta gero, argi zuen berak nahi zuena egiteko unea iritsi zela; benetan gustuko zuena, antzerkia, hain zuzen. 18 urterekin Donostiara joan zen arte eszenikoen tailerrera.

7. Goenkalen aktore lanetan

- **Erref:** ZAR-168/011
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:14:17. **Bukatu:** 00:17:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

Telebistan lehen aldiz lanean aritzean, Ander erabat galduta sentitu zen. Grabatzerako orduan presioa sentitzen zuen; izan ere, zazpi ordutan hamalau sekuentzia desberdin grabatu behar izaten zituzten eta dena nahiko bizkor egin behar zen.

8. Goenkaleren ondoren, "Muxua" antzezlan

- **Erref:** ZAR-168/014
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:19:07. **Bukatu:** 00:19:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Goenkaleren ondoren antzezlan bat etorri zen, "Muxua". Ttanttaka produktorekoak arte eszenikoen tailerrera joan ziren antzezle bila eta bertan Ander aukeratu zuten.

9. "Muxua", homosexualitateari buruzko antzezlan

- **Erref:** ZAR-168/016
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:21:40. **Bukatu:** 00:23:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Muxua antzezlan homosexualitatearen ingurukoa da, Kalifornian gertatutako

benetako gertakari baten inguruan. Homosexualek jasaten duten presio sozialei buruzko antzezlan bat.

10. Antzektoki txikietan, publikotik gertuago

- **Erref:** ZAR-168/018
- **Iraupena:** 0:05:09. **Hasi:** 00:23:27. **Bukatu:** 00:28:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

"Muxua" antzezlana antzektoki txikietan egiteko pentsatu zen, publikoarekin gertutasuna lortzeko asmoz. Antzezlana Euskal Herriko zenbait herritan, eskoletan eta Donostiako dFerian antzeztu zuten. Azkenean antzezlana antzerki handietan ere egin da.

11. "Último tren a Trenblika" antzezlanean

- **Erref:** ZAR-168/019
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:28:36. **Bukatu:** 00:29:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

"Udara bateko ametsa" izan da "Muxua"-ren ondoren egin zuen lana. Orain "Último tren a Trenblika" antzezten ari dira. Juduen inguruko istorio bat da.

12. Alproja antzerki taldea, bere identitatearen parte

- **Erref:** ZAR-168/021
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:31:57. **Bukatu:** 00:33:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Alprojan antzerkia egiteak bere identitatea sortzeko balio izan diola uste du. Gainera herriko jendea ezagutzeko aukera izan du eta beraiekin lana egitekoa.

13. Gitarra, pianoa eta harmonika jotzea gustuko

- **Erref:** ZAR-168/024
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:37:26. **Bukatu:** 00:38:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Bere zaletasunetako bat gitarra, pianoa eta harmonika jotzea da eta baita umeekin lan egitea begirale bezala.

14. Eskoletan antzerki irakasle lanetan

- **Erref:** ZAR-168/029
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:46:18. **Bukatu:** 00:49:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>18 urterekin begirale titulua atera zuen. Haur eta gazteekin dagoenean antzerkia asko erabiltzen du. Orain eskoletan ere irakasten ari da. 7tik 11 urte bitarteko hurrekin.</p>

Transkripzioa

-Esan duzu baita ere umeekin egiten duzula lan aisialdian

-Bai

-Eta normalian zer dakazu titulu bat edo?

- Bai titulua, bai begirale titulua, hoi da, umiak lan iteko begirale titulua, hoi da, hemezortzikin atera nun, eta bueno beti gustatu zait gazteekin o bai umiak lana itia

-Eta hor antzerkia erabiltzen dezue?

- Bai, bai asko, asko erabiltzen det, antzerkia erabiltzen det "a tutiple, a"tutiple", bai, nik txoakeiak re iten ditut, payaso pixkat, payasoana ere itet ta ordun ondo.

-Lehen esan dezu adibidez eskolak ematen ai zeala, ezt?

Bai

-Nun emate ituzu?

- La Sallen, Ikastolan, Orion eta Donostin

-Ikastetxetan ematen dituzu, ezta?

- Bueno, bai hoi da.

- Eta noiz ematen dituzu klaseak, klase orduetan ala hurrek dakaen denbora librean?

- Klase ordutan

-Klase ordutan?

-Hoi da.

-Zenbat urteko haurrai ematen diozu?

-Hamar-hamaika urtekuai, hamar-hamaika eta zor, sei, bueno zazpi urtetikan gorakoak, hamar-hamaika urteraiño.

-Zenbat denbora osea urte guztikoa?

-Urte guztiko programa bat da, ba Patxikin da iten detena. Patxi ez dakit zenbat urtetan daon klasiak ematen antzerkikua ta bueno ni berekin nao.

Ta gero ni aparte, La Sallekuakin oain dala ez dakit zenbat urte hasi zian antzerkia iten gero ez dakit ze mobida eon zan, ta gelditu zian, ta oain berriz´e sartu da ta bueno, oain astian lau ordu ematen ditut La Sallen, eta gero, eta gero Orion ba berdiña, astian ordubete ematen det bueno zerbait da.

-Umien eskolaordutan?

- Hoi da, ordutan.

-Eta nola da hori?

-Eske azkenian umia etortzen dira ondo pasatzera, antzerkira etortzen dira ondo pasatzera. Ez dute nahi liburua, ez dute nahi "pues yo que sé", bueno ba pixkat askatzia, pixkat tontuana iten, bueno tontuana ez dakit esan, baiño ondo pasatzia, orduan ez dakat helburu garrantzitsuena hori da azkenian

-Ta obra bat prestatzen dezue?

- Bai obra bat ari gea prestatzen, bueno batez ere La Sallekuakin, Romeo eta Julieta, beraiek nahi zuten ta bueno hor gaude Romeo ta Julieta iten

-Ta gero obra hori emanaldia ingo due?

- Bai La Salleko horko areto baten bai, aber ze gertatzen dan.

15. "Antzerki munduan euskaraz lan egin daiteke"

- **Erref:** ZAR-168/034
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:57:09. **Bukatu:** 00:59:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara

Laburpena:

Oraintxe bertan antzezlan gehienak gaztelaniaz egiten ari da. Baina euskaraz lan egin daitekeela uste du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-05-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com